


# 4.3.- GAIA: OPERAZIONALIZAZIOA ETA ALDAGAIK





# IKERKETA PROZESUA



# 1.- OPERAZIONALIZAZIOA


- Hipotesiek dituzten kontzeptuak **aldagaietan** zehaztean datza.
- Neurketa enpiriko baterako **aldagai** neurgarriak bilakatzea da (beti ez da posible).



# 1.-OPERAZIONALIZAZIOA

**OHARRA:** Beti ez da posible hipotesiaren kontzeptua aldagai neurgarrian bilakatzea eta orduan adierazleak erabiliko ditugu.

**ADIERAZLEA:** Zuzenean behagarria eta neurgarria ez den kontzeptu edo ezaugarri batera hurbilpena egiteko erabiliko dugun aldagai neurgarria da.



# ADIBIDEAK



**HIPOTESIA:** Emakumeek gizonek baino denbora gutxiago eskaintzen diote formakuntza jarraituari.

**ALDAGAIAK:** Generoa, formakuntza jarraituan igarotako denbora zehatza.



**HIPOTESIA:** Emakumeek gizonek baino bizitza kalitate hobegoa dute.

**ALDAGAIAK:** Nola neur daiteke enpirikoki bizitza kalitatea? Ezinezkoa da.



**HIPOTESIA:** Emakumeek gizonek baino lan baldintza okerragoak dituzte.

**ALDAGAIAK:** Nola neur daitezke enpirikoki lan baldintzak? Ezinezkoa da.

Hala ere, adierazle bat edo batzuk hauta daitezke, adibidez, gizon eta emakumeek jasotako soldata, kontratu partzialen kopurua generoaren arabera...

# Aldagaiak



## IKERTU NAHI DITUGUN ERA ASKOTARIKO EZAUGARRIAK

Generoa, adina, soldata, langabezia, zaletasunak, klase sozialak, ideologia politikoa, seme-alaba kopurua, lanarekiko gogobetetzea, kontratu mota, eginiko ikastaroak, sindikatu-afiliazioa, ikasketak, ian giroa, egoera zibila..

**kuantitatiboak ala kualitatiboak  
izan daitezke.**

---

# KUANTITATIBOAK

## EZAUGARRIEN KANTITATEARI EGITEN DIOTE ERREFERENTZIA

Aldagai kuantitatiboen baloreak zenbakiak dira, hau da, aldagai numerikoak dira

Aldagai kuantitatibo diskretua eta kuantitatibo jarraitua izan daiteke .





# Aldagai kuantitatibo diskretua

Zenbaki osoak adierazten dituzten aldagaiak dira, ondoz ondokoen balioen artean ezin da tarteko baliorik egon.

Adibideak: Zenbat **seme-alaba** ditugu? Zenbat **ordenagailu, tablet** edo **telefono**? Zenbat **pertsona** bizi gara etxean? Hemen erantzuna beti zenbaki oso bat da.

# Aldagai kuantitatibo jarraitua

Balio edo zenbaki ez osoak ere onartzen dituzten aldagaiak dira

Adibideak: Zenbat **denbora** pasatzen duzu ikasten? Zein **altura** duzu? Zein da zure **soldata**?

# KUALITATIBOAK

## KATEGORIAK ADIERAZTEN DITUZTE ETA EZ ZENBAKIAK

Gauzen nolakotasunari  
egiten diote erreferentzia  
eta ez kantitateari



# Aldagai kualitatibo nominala

Kasu honetan baloreak ezin dira hierarkikoki antolatu edo mailakatu.

Adibidez: sexua, egoera zibila, jaioterria, lanpostu mota, begien kolorea..

## Sexo

- Hombre
- Mujer

# Aldagai kualitatibo ordinala

Kasu honetan baloreak hierarkiko antolatu ditzakegu edo mailakatu

Adibidez: klase soziala, ikasketa maila, adierazpen edo balore batekiko adostasun maila...

## Nivel de Instrucción:

Sin estudios (1) Primarios (2) Medios (3) Universitarios (4)

## Estado de Salud (actual):

Muy bueno (1) bueno (2) regular (3) malo (4) muy malo (5) NS (98)

# ADIBIDEAK (I)

**Zein herrialdeetan egiten duzu lan?**

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa
- Nafarroa

**Gurasoekin bizi zara?**

- Bai
- Ez

**Zenbat pentsionista bizi da zure etxean?**

- ---



# ADIBIDEAK

**Zein herrialdeetan egiten duzu lan?**

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa
- Nafarroa

*kualitatibo nominala*

**Gurasoekin bizi zara?**

- Bai
- Ez

*kualitatibo nominala*

**Zenbat pentsionista bizi da zure etxean?**

- ---

*kuantitatibo diskretua*



# ADIBIDEAK (II)

**Zein da zure soldata?**

- ---

**Zenbat irabazten duzu urtean?**

- 6000 euro baino gutxiago
- 6000 eta 12.000 euro artean
- 12.000 eta 24.000 euro artean
- 24.000 euro baino gehiago

**Zein adin duzu?**

- ---



# ADIBIDEAK

**Zein da zure soldata?**

- ---

*kuantitatibo  
jarraitua*

**Zenbat irabazten duzu urtean?**

- 6000 euro baino gutxiago
- 6000 eta 12.000 euro artean
- 12.000 eta 24.000 euro artean
- 24.000 euro baino gehiago

*kualitatibo  
ordinala*

**Zein adin duzu?**

- ---

*kuantitatibo  
jarraitua*



# ADIBIDEAK (III)

## Zein da zure adina?

- 16 urte baino gutxiago
- 16 eta 24 urte bitartean
- 25 eta 34 urte bitartean
- 35 eta 64 urte bitartean
- 65 urte baino bitartean

## Zein da zure generoa?

- Gizona
- Emakumea

Zenbat ordu egiten dituzu etxeko lanetan?

- ---





# ADIBIDEAK

## Zein da zure adina?

- 16 urte baino gutxiago
- 16 eta 24 urte bitartean
- 25 eta 34 urte bitartean
- 35 eta 64 urte bitartean
- 65 urte baino bitartean

*kualitatibo  
ordinala*

## Zein da zure generoa?

- Gizona
- Emakumea

*kualitatibo  
nominala*

## Zenbat ordu egiten dituzu etxeko lanetan?

- ---

*kuantitatibo  
jarraitua*



# ALDAGAI INDEPENDIENTEAK

Aldagai independienteak ez dira beste aldagaien menpeko edo ez dira aldatzen beste aldagaiak aldatzen direnean. Ikertzen ari garen fenomenoaren arrazoia edo arrazoietakoz bat izan daiteke .

# ALDAGAI DEPENDIENTEAK

Aldagai dependienteen baloreak beste aldagaien arabera moldatzen joango dira. Ikerketan eman daitezkeen aldagai independienteen aldaketek aldagai dependienteen baloreak aldatuko dituzte

# ADIBIDEAK

**Ikasketa mailak lanaren bidezko diru sarreretan eragina du:**


- Ikasketa maila aldagai independientea
- Diru sarrera aldagai dependientea

**Generoak etxean egiten den lan kopuruan eragina du**

- Generoa aldagai independientea
- Etxean eginiko lan orduak aldagai dependientea

**Adinak egiten den kirol kopuruan eragina du**

- Adina aldagai independientea
- Kirol-orduak aldagai dependientea



# ADIERAZLEAK

Zuzenean behagarria eta neurgarria ez den kontzeptu edo ezaugarri batetara hurbiltzeko erabiliko dugun aldagai neurgarria da.

Bi ohar:

- Neurtu nahi duguna islatu behar dute
- Fidagarriak

# ADIBIDEZ

Gizon eta emakumeen berdintasuna neurtzeko erabili daitezkeen adierazleak:

- Soldata
- Kargu publiko kopurua
- Zaintza-lanen gaineko ardura
- Kontratu motak...